

# UEMAren Berripapera

UDALERRI  
EUSKALDUNEN  
MANKOMUNITATEA

URTEKARIA  
2024

## Euskaratik zubiak eraikiz



Sei udal gehiago  
UEMAren lurgunera

Euskararen egoera gaur  
Diagnostiko berri baterako datuak 8

Euskara larrialdian  
dagoela adierazi dute  
Europako hizkuntza gutxituen sarearen ebazpena 10

Arnasetik lehiaketa, gero eta sendoago  
Inoiz baino parte hartze handiagoa izan du aurten 17

# UEMAren Berripapera. Urtekaria, 2024.



## Argitaratzailea:

UEMA. Udalergi Euskaldunen  
Mankomunitatea.

Lege Gordailua:  
BI-738-2013

## Bulegoak

### AZPEITIA

Helbidea:  
Enparantza nagusia 11  
Azoka Plaza, 6. bulegoa  
20730 Azpeitia, Gipuzkoa.  
Telefona: 943 81 66 99.

### AULESTI

Helbidea:  
Donibane enparantza 1  
48380 Aulesti, Bizkaia.  
Telefona: 946 27 91 95

### OIARTZUN

Helbidea:  
Mendiburu kalea, 14  
Landetxe eraikina, 2. solairua,  
20180 Oiartzun, Gipuzkoa.  
Telefona: 943 26 03 72

### Koordinazioa:

[koordinazioa@uema.eus](mailto:koordinazioa@uema.eus)

### Administrazioa:

[administrazioa@uema.eus](mailto:administrazioa@uema.eus)

### Komunikazioa:

[komunikazioa@uema.eus](mailto:komunikazioa@uema.eus)

## Webgunea:

[www.uema.eus](http://www.uema.eus)



Martin Aramendi,  
UEMAko  
lehendakaria

## Euskarak arnasa behar du

UEMArentzat argiz eta itzalez betetako urtea izan da bukatzeaz den hau. Euskararen ezagutzak gora egin du, eta gero eta gehiago dira udalergi euskaldunak. Aurten, gainera, sei gehitu dira UEMAren lurgunera, eta 113 udal biltzen ditu gaur egun mankomunitateak. Guztien artean, 348.000 biztanleko lurgune euskalduna osatzen dugu. UEMA, beraz, inoiz baino sendoago dago.

Soziolinguista eta hizkuntzalari adituen eskutik, ordea, euskararen benetako egoera ulertzeko gakoak ere ezagutu ditugu aurten, eta diagnostiko berriak lanean segitzeko beharra berretsi du, hutsik egin gabe. Datuak eskuetan, euskara larrialdian dagoela ere nabarmendu du Europako hizkuntza gutxituen sareak, epe motzean neurri egokiak hartu ezean atzeraldia datorrela oharraraziz. Hurrengo urteotan hartzen diren erabakiek, beraz, zeharo baldintzatuko dute euskararen etorkizuna.

Horregatik, euskarak arnasa behar duela sinetsita, udalergi euskaldunak eta euskararen arnaguneak babesteko eta sendotzeko konpromisoa aldarrikatu nahi dugu UEMATik. Sorreratik, UEMAren egitekoa izan da euskararen biziberritzean eragitea, udalergi euskaldunak eta arnaguneak zainduz, eta aurten urrats berri bat egin dugu ildo horretan: Ipar Euskal Herriko eragileekin lankidetzan, bertako udalergi euskaldunetan eragiteko bidea zabaldu dugu, arnagunetze prozesuei ekiteko eta udalergi horietako euskal hiztunak ahalduntzeko.

Ez da nahikoa. Badakigu. Lurralde guztietan behar du arnasa euskarak. UEMAK bere esparruan eragiten jarraituko du: udalergi euskaldunetan, horietan egiten dugun hizkuntza-politika gainerakoentzat ere bide-erakusle eta akuilu izango delakoan.

## AURKIBIDEA

Udalergi Euskaldunen Eguna Lesakan	3	14	EiTBrekin hitzarmena sinatu du UEMAK
Sei udalergi gehiago UEMAren lurgunera	6	16	Euskara eta kulturartekotasuna
Datu soziolinguistikoak: diagnostiko berri baterako datuak	8	17	Arnasetik bideosormen lehiaketa
Euskara larrialdi linguistikoan dagoela adierazi du ELENEk	10	18	Salto! udalekuak: inertziatik kontzientziara
Hedatu, hezkuntzan eragiteko giltzarria	12	20	Laburrean
		22	Bertatik bertara kanpaina, zerbitzu sektorean

# UEMA eta udalerri euskaldunak: herritarren, euskalgintzaren eta erakundeen artean zubiak eraikiz

Udalerri Euskaldunen Eguna izan zen maiatzaren 18an, Lesakan, festa eta aldarrikapena uztartuz. Goizean UEMAren batzar nagusia egin zuten udalerri euskaldunetako ehun bat alkatek eta zinegotzik, eta ordu berean hainbat herritako euskara taldeak ere elkartu ziren, elkarren berri izateko eta euskararen aldeko olatu berria sortzeko gakoak aztertzeko.

Eguerdian, berriz, ekitaldi instituzionala ere izan zen Lesakako plazan, erakunde publikoetako eta euskalgintzako ordezkariak zabalarekin. Euskal Herrian Euskaraz erakundearen ibilbidea aitortu eta sortzaileak omendu zituzten, eta bazkari herrikoiaren ondoren hainbat ekitaldi izan zen arratsaldean ere, udalerri euskaldunen ekarpena festa giroan aldarrikatzeko.



Hainbat ekitaldi izan zen maiatzaren 18an Lesakan Udalerri Euskaldunen Egunean, giro ederrean.

# Euskararen aldeko olatu berria sortzeko gakoak bila, elkarrekin

Udalerri Euskaldunen Egunarekin bat eginez, bateko eta besteko euskara taldeen topaketa ere antolatu zuen UEMAK, Bor-bor Bortziritako Euskaltzaleen Mugimenduaren laguntzarekin.

Hamaika euskara talde eta elkarte elkartu ziren Lesakako Herriko Etxean, euskararen aldeko olatu berria sortzeko gakoak aztertzeko.

Lehenik euskara taldeen lana ezagutzeko eta elkarren berri izateko lan-saio praktikoa egin zuten. Gaur egungo egoeraren diagnostiko laburra partekatu zuten ondoren, eta erronka berriei heltzeko gakoak aztertu zituzten azkenik, saretzeko moduekin batera.

Gehienek kezka zehatza adierazi zuten: "Euskararen ezagutza gora doa, baina joera hori ez da kaleko erabileran islatzen". Euskara elkarte gehienetan gazteak falta direla ere nabarmendu zuten, eta beharrezkoa dela transmisio lana egitea, horrek euskalgintzara hurbilduko dituelakoan.

### Aitortza EHEren lanari eta taldearen sortzaileei

Eguerdiko ekitaldi instituzionalean, berriz, UEMAK eta Lesakako Udalak Euskal Herrian Euskaraz taldearen ibilbidea aitortu zuten, eta omenaldia egin zieten taldearen aitzindariari, hizkuntza-eskubideen defentsan eta euskararen normalizazioan egindako lanagatik.



Goian, hainbat euskaltzale, euskara taldeen topaketan. Behean, Euskal Herrian Euskaraz taldeko aitzindariak, eguerdian jaso zuten omenaldian.

**"Euskarak aurrera egiteko behar duen olatu berri horretan ezin dugu ikusle hutsak izan; lehen lerroan egotea dagokigu"**



Udalerri Euskaldunen Eguneko ekitaldi nagusian, berriz, euskalgintzako eta erakunde publikoetako hainbat ordezkari izan ziren. Horien artean hitz egin zuen UEMAKo lehendakari Martin Aramendik ere, denen beharra nabarmenduz.

Euskarak behar duen bultzada berriaz ere hitz egin zuen: "Erakunde publikoak garen heinean, udalei eredugarri izatea dagokigu. Beraz, euskarak aurrera egiteko behar duen olatu berri horretan ezin dugu ikusle hutsak izan. Lehen lerroan egotea, aitzindari izateko eta erakunde publiko handiagoetan eragiteko konpromiso sendoa daukagu UEMAKo kide garen udalek, hizkuntza politikak batean eta bestean behar duen aldaketa benetakoa izan dadin".



**ZUBIAK ZEHARKA.** UEMAK, Lesakako Udalak eta hainbat eragilek Udalerri Euskaldunen Egunaren nondik norakoak aurkezteko hedabideen aurrean egindako agerraldia. Lesakan izanik, *Zubiak zeharka* leloa hautatu zuten aurtengo egunaren lelotzat.



**HERRI BERRIAK.** Bakaiku, Ituren, Lakuntza eta Zegamako udalak UEMARA gehitzea onartu zuen UEMAREN Batzar Nagusiak Lesakan. Udal horietako alkateek hartu zuten hitza, batzarkideei eskerrak emateko eta UEMAREkin lankidetzan aritzeko beharra nabarmentzeko.



**111 UDAL, EUSKARARI ARNASA EMANEZ.** Lau herri berriak gehituta, 111 udal izatera heldu zen UEMA maiatzean, eta udal horietako alkateek eta zinegotziek argazkia atera zuten Batzar Nagusiaren ondoren. 346.000 biztanleko lurguneko euskalduna osatzen dute.



**EHEren ERNAMUINA.** Kontxi Erro eta Antton Erkizia lesakarrek eta horiekin batera Euskal Herrian Euskaraz taldearen aitzindariak izan zirenek omenaldia jaso zuten, urte askoan euskararen ofizialtasunaren eta hizkuntza-eskubideen alde egindako lana aitortuz eta eskertuz.



**EGUN OSOKO FESTA.** Fanfarrea Lesakako musika eskolako ikasleekin, musikarekin girotutako bazkari herrikoia, bertso-triki-poteoa, larrain dantza, gaiteroak, erromeria eta dj festa ere izan zen egunean zehar, egitaraua eta giro ederra gaueraino luzatuz.



**ABESTIA ETA BIDEOKLIPA.** Udalerri Euskaldunen Egunaren aurtengo abestia "modu herrikoian" sortu zuen Lesakako Arranoband taldeak, eta bideoklipa ere horren isla da. Hemen ikus daiteke: [Solasa izan: \*\*labur.eus/solasa\\_izan\*\*](https://www.youtube.com/watch?v=Solasa_izan)

## UEMAko udal berriak

# Aurten sei udalerrri gehiagorekin zabaldu da UEMAren lurgunea

Udalerrri euskaldunek euskararen biziberritzeari egiten dioten ekarpena ezagututa, euskararen lurgunea handitzea eta horretarako UEMA bera sendotzea da Udalerrri Euskaldunen Mankomunitatearen helburuetako bat.

Ildo horretan, urte oparoa izan da aurtengoa ere: sei udalerrrik erabaki dute UEMAko kide izatea. Gainera, Ipar Euskal Herriko zenbait udalerrri euskaldunek ere abiaraziko dituzte biziberritze eta arnagunetze prozesuak laster, UEMArekin eta Plazara elkartearekin lankidetzan.

Maiatzaren 18an Lesakan egindako batzar nagusian, lau udal berri gehitu ziren UEMARA: Bakaiku, Ituren, Lakuntza eta Zegama. Abenduaren 14an Zarautzen egindako batzarrean, berriz, Arano eta Lekunberri izan dira onartutako azken herriak.

### 113 udal eta 348.000 biztanleko lurgune euskalduna

Aurten UEMARA gehitu diren sei udalekin, dagoeneko 113 udalerrri dira mankomunitateko kide, eta guztien artean 348.000 biztanle inguruko lurgune euskalduna osatzen dute.



Bakaiku, Ituren, Lakuntza eta Zegamako udal ordezkariak, maiatzean, Lesakan, UEMAko kide bihurtu ziren egunean.

Euskaldunen indizea %70etik gora izatea da UEMAko kide izateko baldintza, udalak erabakia hartzearekin batera. 17 udalekin ekin zion bideari UEMAK 1991n, eta 2023an gainditu zuen 100 udalen langa. Aurtengoak gehituta, inoiz baino sendoago da UEMAn saretuta dauden udalerrri euskaldunen lurgunea.



### BAKAIKU. Nafarroa.

**234 biztanle.** Apirilaren 30ean erabaki zuen Sakanako herriak UEMAko kide izatea, aho batez. Euskaldunen indizea %71,25 da Bakaikun. Udalerrri euskalduna da, baina horrek kalean isla izan dezan euskararen kaleko erabileran eragin nahi du udalak.



### ITUREN. Nafarroa.

**519 biztanle.** Baztan-Bidasoa eskualdeko herria da Ituren, eta Malerreka ibarrean dago kokatuta, Nafarroako zonalderik euskaldunenetakoan. Iturenen, zehazki, euskaldunen indizea %88,8 da. Arnasgune betea da, beraz.



### LAKUNTZA. Nafarroa.

**1.297 biztanle.** Martxoaren 21ean erabaki zuten Sakanako herriak UEMAKo kide izatea, aho batez. Datu soziolinguistikoen arabera lehen aldiz sartu da Lakuntza udalerrri euskaldunen multzora, baina kaleko erabilerarekin kezkatuta dago udala.



### ZEGAMA. Gipuzkoa.

**1.542 biztanle.** Zegamak aho batez erabaki zuten UEMAKo kide izatea, martxoaren 14an. Arnasgunea da Goierriko herria, baina baina aldatzen ari da euskaldunen profila, eta beheraka ari da euskara lehen hizkuntza duten herritarren ehunekoa.



### ARANO. Nafarroa.

**116 biztanle.** Azaroaren 28an egindako udal osoko bilkuran erabaki zuten Aranoko Udalak UEMAKo kide izatea, aho batez. Euskaldunen %92,2ko indizearekin, euskararen arnagune trinkoenetako bat da Arano, eta horri eutsi nahi dio udalak.



### LEKUNBERRI. Nafarroa.

**1.502 biztanle.** Nafarroa ipar-mendebaldeko herria da Lekunberrri. Leitzaldean dago kokatuta, eta %76,6 da bertako euskaldunen indizea. Azken urteotan euskararen erabilerak izandako bilakaerari egin nahi dio aurre udalak.

## Ipar Euskal Herriko udalerrri euskaldunetan eragiteko hitzarmena sinatu dute UEMAK eta Plazara elkarteak, eta arnagunetze prozesuei ekingo diete

UEMAK eta Plazara elkarteak bi aldeen arteko lankidetzaz hitzarmena sinatu zuten apirillean, lehen aldiz. Hitzarmenak lau urteko iraupena du, eta "udalerrri euskaldunetatik euskararen biziberritze prozesuari bultzada emateko proiektuak garatzea eta zabaltzea" du helburu.

Ipar Euskal Herrian kinka larrian dago euskara, eta azken urteotan jasan duen frantziarren migrazioak eragin handia izan du. Gainera, Lapurdin, Nafarroa Beherean eta Zuberoan euskara ez da ofiziala, eta

horrek zaildu egiten du egoerari aurre egiteko ezinbestekoa den euskararen aldeko hizkuntza politika.

Barnealdean, ordea, oraindik badira euskaldunen indize handia duten herriak. Euskara biziberritzeko ezinbestean zaindu eta babestu behar dira gune horiek, eta horretarako zenbait herriko etxerekin lankidetzari ekingo diote UEMAK eta Plazara elkarteak 2025ean, arnagunetze prozesuei ekiteko eta udalerrri horietako euskal hiztunak ahalduntzeko.

# Diagnostiko berrirako datuak

**Iñaki Lurrebasoren tesian bildutako gakoak euskararen egoera ulertzeko giltzarriak direlakoan, horiek ezagutarazteko dozenaka hitzaldi antolatu ditu aurten UEMAK.**

Iñaki Lurrebaso soziolinguistak eta UEMAKo ikerlariak euskalgintzaren eta hizkuntza politikaren oinarriak astindu dituen doktore tesia aurkeztu zuen 2023an. Euskararen benetako egoera ezagutzeko eta diagnostiko zehatzagoa egiteko hainbat giltzarri biltzen ditu tesiak, eta horren nondik norakoak aurkezten aritu da aurten batean eta bestean, UEMAK, udalek eta euskalgintzako hainbat eragilek antolatutako hitzaldietan.

Lurrebasoren arabera, euskara bereziki ahul dago hizkuntza-gaitasunean: Euskal Herriko 10 hitzunetatik 7k ez dakite euskaraz. Aldiz, ia ez da gelditzen erdaraz ez dakien euskaldunik. Horrek eragin zuzena du hizkuntza bat ala bestea erabiltzerakoan. Indartsu eragiten du erdaren alde, eta euskalduna askotan aurkitzen da nahitaez erdaraz aritu beharrean.

Horrez gain, euskaraz dakiten hiztunen artean ere gehiago dira erdaraz errazago egiten dutenak. Hori guztia kontuan hartuta baloratu behar da hizkuntzen erabilera. "Hizkuntza-gaitasunean dugun zorurako, nahikoa handia da dagoen erabilera-maila", dio Lurrebasok. Izan ere, hiztun askok erosotasunak aginduko lukeena baino dezentze gehiago erabiltzen du euskara, hiztunen multzo handi batek euskararen aldeko jarrera indartsua duelako. Beraz, hizkuntza-gaitasunean du euskarak bere ahulgune nagusietako bat.

### Alarma gorria pizteko zenbait adierazle

Hizkuntzaren osasuna, ordea, beste adierazle batzuen bidez ere neurtzen da, eta horiek ere aztertu ditu Lurrebasok tesian. Zehazki, sei ardatz nagusi aletu ditu euskararen egoera ulertzeko: hizkuntza-gaitasuna, erabilera, hizkuntzarekiko jarrera eta motibazioa, transmisioa eta sozializazioa, hizkuntza-bilakaera, eta lurralde batean hizkuntzek duten nagusitasuna.

Adierazle horiek guztiak kontuan hartuta, ondorioa ez da samurra: euskara minorizazio gorrian dago. Gordin adierazita, Lurrebasok aztertu dituen adierazleek gertuago erakusten dute hizkuntza heriotza-egoera batetik balizko elebitasun orekatu egoera batetik baino.



Iñaki Lurrebaso, urtarrilean, Beran, Bortziritako Euskara Mankomunitateak eta UEMAK antolatutako hitzaldian. Argazkia: [erran.eus](http://erran.eus)

### HERRIZ HERRI, 40 HITZALDI

**Euskararen egoera gaur. Zer diote datuek?** izenburupean, Lurrebasok 2024an 40 hitzaldi eman ditu, UEMAK, udalek eta tokian tokiko euskalgintzako eragileek antolatuta.

**HITZALDIAK, guztira:** 40.

- **Herrietan:** 26 hitzaldi.
- **Gizarte eragileekin:** 14 hitzaldi.

**ENTZULEAK,** guztira: 1.700.


### Hausnarketarako gakoak

- ✓ Erabilera datuak ulertzeko, ezagutza ez ezik hizkuntza-gaitasuna ere kontuan hartu behar da.
- ✓ Euskara nagusi izango duten eta euskaraz erdaraz baino errazago arituko diren hiztunak ugaritzea funtsezko erronka da.
- ✓ Horregatik, ezinbestekoa da euskararen arnaguneak eta udalerrri euskaldunak babestea, sendotzea eta hedatzea.
- ✓ Lehentasunezkoa da arnaguneetan sumatzen den atzeraldia etetea eta norabidez aldatzea.

# Euskara: heriotzetik gertuago parekidetasun egoeratik baino



Iñaki Lurrebaso,  
UEMAko  
ikerlaria



Hizkuntza bat lurralde batean ahul edo indartsu dagoen jakiteko badira funtsezko hainbat alderdi kontuan hartu beharrekoak. Alderdi horietako batzuk 0 eta 100 arteko mailaketa batean jar daitezke: 0ak inolako bizitasunik ez duen hizkuntza adieraziko luke, hilda edo hiltzorian dagoena, eta %100ak erabateko nagusitasuna, lurralde batean jaun eta jabe den hizkuntza. Erdibidean, bi hizkuntza dauden lurralde batean, %50eko balio batek hizkuntzen arteko une horretako nolabaiteko parekidetasun egoera erakutsiko luke.

Eskema horren gainean, zein da euskararen indar-ahultasun maila? 0-100 eskala horretan koka dezakegu, hasteko, erabilera: datu soziolinguistikoen arabera: %13 ingurukoa da euskara erdara baino gehiago erabiltzen duten hiztunen kopurua Euskal Herrian. Hizkuntza-gaitasunari erreparatuta, berriz, gaur egun %8 da euskaraz erdaraz baino errazago aritzen diren hiztunen kopurua. Belaunaldi berriei euskara transmititzeko ahaleginari buruz, gaur egungo Hegoaldeko haurren %17ak jaso du etxean euskara hizkuntza nagusi gisa. Eta azken datu bat 0-100 eskala horretan koka dezakeguna: euskara nagusi den udalerrietan, arnagune izaera dutenetan, bizi diren herritarrak %4 dira. Horrela bada, aipatutako

lau adierazleetan euskarak duen pisua %4aren eta %17aren artean kokatuko litzateke. Kasu guztietan nagusitasunetik oso urruti, gertuago erabat ahuldutako eta hiltzorian dauden hizkuntzetatik, %0tik hurbil dauden balioetatik elebitasun parekide samar batek izango litzuzkeen %50aren inguruko balioetatik baino. Labur esanda: minorizazio larrian dago euskara. Eta minorizazio maila hain larrian egoteak berez dakar hizkuntzak ahultzen jarraitzeko joera.

Dena ez da beltz kolorekoa. Euskararen alde eragiten dute hiztun askoren atxikimendu handiak eta horrekin lotuta, belaunaldi berriak euskaldun hazteko herritar ugari egiten duten ahaleginak. Ezaugarri horiek ez dira hain arruntak hizkuntza gutxituetan, eta funtsezko indargunea dira gure egoeraren argazkia egiterakoan.

Edozein kasutan, berez ahul dagoen hizkuntza are gehiago ahulduko da indarrean dauden faktore teknologiko, kultural, politiko eta demografikoek eraginda, baldin eta egoeraren kontzientzia hartu eta euskararen aldeko neurri zehatzak hartzen ez badira. Horregatik ezinbestekoa da euskal jendea egoeraren larritasunaz ohartzea eta aurrera begira euskararen indarberitzearen aldeko indarrak pitzea.



Galesko hizkuntzalari, ikerlari eta politikariz osatutako ordezkaritza, irailean, Donostian, UEMako koordinatzaile Miren Seguroarekin, gaelikoaren arnasmuneak biziberritzeko Galesko gobernuak abiarazitako Arfor egitasmoaren nondik norakoak azaltzeko bileraren ondoren.

## Euskara "larrialdi linguistikoan" dagoela adierazi du Europako hizkuntza gutxituen sareak

Europako hizkuntza gutxituen ELEN sareak urteko biltzarra egin zuen azaroaren 8an eta 9an Bilbon, eta hainbat hitzaldi eta mahai-inguru izan ziren hizkuntza gutxituen inguruan. UEMA ere bertan izan zen, hitzaldi eta mahai-inguruetan parte hartuz.

Biltzarraren amaieran, larrialdi linguistikoari buruzko ebazpena onartu eta irakurri zuen ELEN sareak, Euskalgintzaren Kontseiluarekin batera, euskara larrialdian dagoela adieraziz eta "indarrean diren joera soziolinguistikoak eta egiturazko arazoak itzulikatzeke neurri egokiak epe laburrean hartu ezean, atzeraldia datorrela" nabarmenduz.

Hizkuntza larrialdiei aurre egiteko arnasmuneak zaintzearen eta indartzearen garrantzia ere nabarmendu zuten ELENeko arduradunek, baita hedabideetan egindako agerraldietan eta elkarrizketetan ere. *Berria* egunkariak, esaterako, titular nagusia eman zien Elin Haf Gruffydd Jones eta Davyth Hicks ELENeko arduradunen adierazpenei: "Arnasmuneak indartzeko ahaleginak garrantzitsuak dira hizkuntza krisiei aurre egiteko".

Arnasmuneei buruzko nazioarteko lehen kongresua, 2025ean

Arnasmuneeen garrantziaren jakitun, euskararen arnasmuneak zaintzea eta udalerririk euskaldunenak babestea izan da UEMAREN ildo nagusienetako bat mankomunitatearen sorreratik.

**"Euskara larrialdi linguistikoan dago, eta neurri egokiak epe laburrean hartu ezean atzeraldia dator"**

Euskal Herrian ez ezik, azken urteotan nazioartean ere abiarazi dituzte arnasmuneak babesteko egitasmoak. Galesen, esaterako, hizkuntza biziberritzeko egitasmoa abian dute gaelikoa nagusi den eremuetan, eta horren berri ematera eta euskararen aldeko hizkuntza politika ezagutzera etorri zen Galesko ordezkaritza irailean.

UEMAREkin eta beste zenbait eragilerekin egun haietan egindako bileren eta ELEN sarearen ebazpenaren ondoren, hizkuntza gutxituetako eragileek arnasmuneei buruzko nazioarteko lehen kongresua egiteko beharra ikusi dute. Euskal Herrian izango da, 2025eko udazkenean.

**Larrialdi linguistikoari buruzko ebazpena, osorik:**



[labur.eus/EuskaraLarrialdian](https://labur.eus/EuskaraLarrialdian)

ELEN sarea, 2024ko azaroa

## Erantzukizuna eta konpromisoa, olatu berria sortzeko

**Abenduaren 3an, Euskararen Nazioarteko Egunean, UEMAk eta UEMAko kide diren udalek honako adierazpen instituzionala plazaratu dute.**

Euskararen biziberritze prozesuak susperraldi egoera bizi izan du azken hamarkadetan, baina badira urte batzuk euskararen egoera bidegurutzean dagoela entzuten hasiak garela. Euskararen gaur egungo egoera zein den ulertzeko Iñaki Lurrebasoren doktore tesiak proposatutako ikuspegi berriak edota Euskaltzaindiaren gogoeta guneak ere argi erakutsi eta adierazi dute jauzi sendoak emateko unea iritsi zaigula.

Euskara bi hizkuntza hegemonikorekin talka egoeran dagoen hizkuntza gutxitua izanik, aldeko hizkuntza politikak egin beharra ezinbestekoa da euskarari eutsiko badiogu. Gainera, globalizazio egoerak, aldaketa demografikoek eta digitalizazioak, besteak beste, ez dizkigute errazten hizkuntza gutxituak indarberritzeko aukerak. Dugun errealitatea, euskararen egiturazko arazoak heltzeko azken aukera izan daiteke. Jauzi berria emateko unea da, aurrerantz egiten ez badugu atzerantz egingo dugulako. Datuek horixe erakusten digute: euskal herritarren %13k erabiltzen du euskara erdarak baino gehiago; %8 aritzen da euskaraz erdaretan baino errazago; eta, transmisioari erreparatuz gero, Hegoaldeko haurren %17k jaso du etxean euskara nagusitasunez. Era berean, euskal herritarren %4 soilik bizi da euskara nagusi den eremuetan. Alegia, euskaraz normaltasun erlatiboz bizi daitekeen guneetan. Gainera, gune horiek ahultzen ari zaizkigu. Horrenbestez, ELEN Europako Hizkuntza Gutxituen sareak eta Euskalgintzaren Kontseiluak adierazi berri duten bezala, guk ere euskara larrialdi linguistikokan dagoela adierazi nahi dugu.

Horrez gain, nabarmendu behar dugu, joera soziolinguistikoaz harago, epaitegietatik ere euskararen aurkako neurriak hartzen jarraitzen dutela. Gure hizkuntzaren aurkako oldarraldian murgilduta jarraitzen dugu.

Horri guztiari aurre egiteko, inoiz baino gehiago, euskararen aldeko neurriei tinko heldu behar diegu, eta jauzi handi bat eman norabide egokian.

**“Inoiz baino gehiago, euskararen aldeko neurriei tinko heldu behar diegu, eta jauzi handi bat eman norabide egokian”**

Eginkizun horretan berebiziko garrantzia dute arnasguneek eta udalerrri euskaldunek, horiek erakusten dutelako posible dela euskaraz bizi den herria. Hizkuntza guztiek behar dituzte beraiek nagusi diren eremuak, hizkuntza naturalki transmititzen den eremuak, hizkuntza garatu dadin, normalizatuz eta zabalduz. Horregatik, gune euskaldunek ardura dute jauzi berri hori irudikatze eta bide erakusle izateko. Guk erantzukizun hori geure egiten dugu, eta konpromisoa hartzen dugu zeharkako hizkuntza politika aurrerakoia indartzeko.

Azken hamarkadetan euskara mantentzeko eta zabaltzeko gai izan bagara, aurrerantzean ere horretan jarraitzeko bizi-indarra izango dugu. Olatu berria sortzeko unea orain da, eta olatu horren eragile izango da udala ere.



## HEDATU hezkuntza proiektua

# Arnasguneen eta udalerrri euskaldunen garrantzia hezkuntzan ere hedatuz



UEMAko kide diren herrietarako hezkuntza proiektua da Hedatu, eta 2016az geroztik lantzen da ikasleekin, irakasle-hezitzaileekin eta gurasoekin, bai ikasgeletan eta baita ikastetxeetatik kanpo ere.

Euskararen inguruan herritarrak ahalduntzeko eta sensibiltzatzeko ekimenak dira UEMAREN ildo nagusietako bat azken urteotan, eta horretarako ikastetxeak funtsezkoak direlakoan, euskararen arnasguneei buruzko Hedatu hezkuntza proiektua abian du UEMAK. Horrela, hezkuntza arautuan, ikasgeletan ere ari dira lanean UEMAKO teknikariak, HHko, LHko, DBHko eta Batxilergoko ikasleekin, irakasleekin eta gurasoekin.

Udalerrri euskaldunak eta arnasguneak giltzarriak direla nabarmentzea da proiektuaren helburua, gazteei euskararen normalizazio prozesuan duten garrantzia ikusarazteaz gain.

Horretarako, hezkuntza arautuan, maila bakoitzera egokitutako unitate didaktikoak eskura dituzte irakasleek zein ikasleek. Horrez gain, formazio-saio zehatzak ere eskaintzen dizkie UEMAK irakasleei eta gurasoei. Baita hainbat tailer ere Haur Hezkuntzako, Lehen eta Bigarren Hezkuntzako eta Batxilergoko ikasleei.

Hezkuntza ez arautuan eragiteko, berriz, aisialdiko hezitzaileentzako formazio-saioak antolatzen ditu UEMAK. Baita Salto! udalekuak ere. Horiez gain, aisialdian euskaraz aritzeko baliabideen zerrenda eta hezitzaileentzako dekalogoia bezalako euskarriak ere sortuta ditu.

Azken batean, haurrek, gazteek eta nerabeez hezkuntzaren egoerari buruz kontzientzia izan dezaten, ezinbestekoa da hiru esparrutan eragitea: irakasle eta hezitzaileak, ikasleak eta gurasoak. Horiek dira Hedatu hezkuntza proiektuaren hiru orubeak.

### HEDATU



Euskararen arnasguneei buruzko hezkuntza proiektua.

IRAKASLE-HEZITZAILEAK	IKASLEAK	GURASOAK
Hainbat gairen inguruko formazioak: <ul style="list-style-type: none"><li>• Soziolinguistika.</li><li>• Hizkuntza estrategiak.</li><li>• Hedatu gure eskolan.</li></ul> Eskolako diagnostikoa.	Unitate didaktikoak: <ul style="list-style-type: none"><li>• HHTik DBHra.</li></ul> Tailer osagarriak: <ul style="list-style-type: none"><li>• Ispiluari begira (LH2)</li><li>• Bagoaz (LH6)</li><li>• Bazatuz</li><li>• Bixitailerra (DBH2)</li><li>• Batxitailerra (Batx. 2)</li></ul> Neurketa: hezkuntzen erabilera patioan.	Gurasoentzako saioak: <ul style="list-style-type: none"><li>• Nola eragin?</li><li>• Saioa guraso erdaldunentzako.</li></ul> Diagnostikoa eskolan.
		Kulturartekotasuna: <ul style="list-style-type: none"><li>• Eskuorriak.</li><li>• Guraso bilerak.</li><li>• Guraso elkarteetako hezkuntza irizpideak.</li></ul>

Hezitzaileentzako baliabideak [bio.link/hezitzaileakUEMA](https://bio.link/hezitzaileakUEMA)



Eskoletan 300 saio baino gehiago eskaini ditu aurtur ere UEMAK, ikasleak euskararen egoeraz ahalduntzeko.

## HEDATU. 2024ko datuak.

Hezkuntza komunitateko partaideen sentsibilizazioan, ahalduntzean eta aktibazioan eragiteko UEMAK udalerrri euskaldunetan 2024an egindakoa, zenbakitan.

### IKASLEAK

- Ispiluari begira: 66 saio. 1.178 ikasle eta 313 guraso.
- Bagoaz: 78 saio. 1.307 ikasle.
- Bixitailerra: 63 saio. 1.916 ikasle.
- Batxitailerra: 67 saio. 1.448 ikasle.
- Bizkarsoro: 31 emanaldi ikastetxeetako ikasleekin.

### IRAKASLEAK

- Unitate didaktikoen lanketa: 4 saio. 39 irakasle.
- Soziolinguistika: 11 saio. 267 irakasle.
- Estrategien saioa: 19 saio. 483 irakasle
- Patioko hizkuntzen neurketa: 3 herri.

### GURASOAK

- Guraso euskaldunak: 15 saio. 200 guraso.
- Guraso erdaldunak: 11 saio. 90 guraso.

### ALDAKETAK

Unitate didaktikoak eta baliabideak eguneratzeaz gain, 2023tik 2024ra egitasmoan hainbat aldaketa egin ditu UEMAK, atzemandako beharrei eta jasotako ekarpenei erantzunez.

- Erdal nagusitasuna duten udalerrri euskaldunetarako eta nagusitasunik gabeko udalerrietarako diskurtsoa egokitu da.
- Gurasoentzako eta irakasleentzako baliabidez errendak berriitu dira.
- Ikasleentzako bi tailer (Bagoaz eta Batxitailerra) erdal nagusitasuna duten udalerrri euskaldunetarako egokitu dira.
- Irakasleentzako eta gurasoentzako formazioen inguruko azalpenak, tipologiak eta arauak jaso dira.
- Korrikaren inguruko eskuorriak diseinatu dira, herri bakoitzerako moldatuta, eta 8 hizkuntzatarantz itzuli dira.
- Euskara errefortzuei lotutako praktika onen bilduma bat sortu da.

“Euskararen eta gazteleraren edota beste hizkuntza hegemonikoen artean alde handia dago, eta euskaraz hitz egiteak ahalegin, kontzientzia edo sentsibilizazio berezi bat eskatzen du, eskolan behar beste landu ez dena, agian. Euskaraz jakiteak euskararen erabilaren arduradun egiten gaitu, eta ez hitzun, besterik gabe. Bestela, kontzientziarik ez baduzu, ezin zaio aurre egin gaztelerak edo ingelesak duten indarrari. Hala ere, uste dut, neurri batean, eskolan landu beharreko zerbait dela hori. Ardurarik edo kontzientziarik ez badago, oso handia da euskara baztertzeko aukera, eta hori da gertatzen ari dena”.

Itziar Idiazabal, euskal hizkuntzalari eta psikolinguista (2024).



EiTBrekin abiarazitako lankidetzari esker, azaroan Golazen telesailaren denboraldi berriko lehen atala alde zuzen estreinatuta zuten UEMAKo kide diren 80 herritan, eta arrakasta handia izan zuen ekimenak. Argazkia: EITB.

## Euskarazko ikus-entzunezkoak zabaltzeko hitzarmena sinatu dute UEMAK eta EiTBk, lehen aldiz

UEMAK eta EiTBk elkarlanerako hitzarmena sinatu dute aurten lehen aldiz. Udalerri euskaldunetan euskarazko ikus-entzunezkoak areago zabaltzea da helburua, eta bi aldeen artean horretarako moduak zehaztu dituzte abenduaren hasieran sinatu duten hitzarmenean.

Izan ere, azken ikerketek argi erakutsi dute euskarazko kultur kontsumoa erdarazkoen oso azpitik dagoela. Euskal Herri osoan gertatzen da hori, baita udalerri euskaldunetan ere. Gazteen ikus-entzunezkoen kontsumoari buruz UEMAK 2022an argitaratutako ikerketak ere azalarazi zuen pantailetan erdarazko edukiak ikusten dituztela batez ere haurrek, nerabeek eta gazteek, eta horrek eragin nabaria du hizkuntza-ohituretan.

Hori aldatzeko ezinbestekoa da euskarazko eskaintza zabaltzea, eta ildo horretan urrats berria egin nahi izan du UEMAK, EiTBrekin sinatu duen hitzarmena baliatuta.

### Primeran plataformako eduki zehatzak

Hitzarmenaren arabera, UEMAKo kide diren udaletako zinema-aretoetan edota emanaldi publikoetarako aretoetan, Primeran plataformako

eduki zehatzak eskaintzeko aukera izango dute udalek, doan, beti ere 3.000 biztanletik beherako herrietan. UEMAK eta EiTBk adostuko dituzte edukiak, gero udalei helarazteko.

Horrez gain, bi aldeek unean uneko ekimenetarako ere atea zabalik utzi dute, UEMAKo kide diren herri guztietan ikus-entzunezko zehatzak eskaintzeko.

### Primeran plataformatik UEMAK eta EiTBk hautatutako eduki zehatzak eskura izango dituzte udalek, aretoetan eskaintzeko

Azaroan, esaterako, Golazen telesailaren 11. denboraldiko lehen atala estreinatuta zuten UEMAKo kide diren 80 herritan, eta arrakasta handia izan zuen ekimenak. Horrelako gehiago egiteko asmoa agertu dute EiTBk zein UEMAK.

Bi kasuetan, eta euskarazko ikus-entzunezkoen eskaintza ezagutarazi eta hauspotu nahian, EiTBren Primeran eta Makusi plataformak sustatuko ditu UEMAK udalerri euskaldunetan.

## “Ikus-entzunezkoetan erdaren oso azpitik dago euskara”

**Eskola eta herri askok kezka handia agertu dute ikus-entzunezkoek haur eta gazteen hizkuntza-ohituretan duten eraginagatik, eta egoera bideratzeko urratsak eskatu dituzte.**


UEMAko ordezkariak agerraldia egin zuten Eusko Legebiltzarrean eta Nafarroako Parlamentuan 2022an, gazteen ikus-entzunezkoen kontsumoari buruzko ikerketa aurkezteko. Orduko azterlan hartan, telebista, sare sozialak, streaming plataformak, musika eta bideojokoen kontsumoa aztertu zituen UEMAK, eta euskara erdaren oso azpitik dagoela ondorioztatu zuen. UEMAKo kide diren herrietako 11.571 gaztek betetako inkesta zuen oinarri ikerketak.

Adibide bakar bat aipatzearen, 2022an gaztetxoek ikusi zuten azken serie edo marrazki bizidunetatik %10,6k baino ez zuen ikusi euskaraz, eta adinean gora eginez gero jaitsi egiten zen ehuneko hori: batxilergoko ikasleen %3,1ek baino ez zuen ikusi euskarazko serie edo marrazki-bizidunak.

Diagnostikoaren larritasuna nabarmendu zuen orduan UEMAK, ikus-entzunezkoena arlo estrategikoa dela eta, beraz, erabaki sendoak hartzea ezinbestekoa dela adieraziz.

### Bi urtean, urrats garrantzitsuak

Ikus-entzunezkoek hizkuntza-ohituretan duten eraginaren jakitun, erakunde publikoek baliabideak areagotu dituzte azkenaldian. EITBk, esaterako, euskarazko edukien eskaintza sendotu, garatu eta aurkeztu du. Iaz, urrian, Primeran euskarazko streaming plataforma abiarazi zuen. Aurten, berriz, Makusi sortu du. Biek ezinbestean eragingo dute euskaldunen ikus-entzunezkoen kontsumoan.



**Azterlana. Ikus-entzunezkoen kontsumoa udalerrri euskaldunetan.**  
Hemen osorik: [labur.eus/ikus-entzun](http://labur.eus/ikus-entzun)

#### Primeran



Euskal streaming plataforma da. Askotariko edukia aurki daitezke: euskal ekoizpenak, nazioarteko telesailak, zinea, dokumentalak eta haurrentzako edukia. Baita eduki eskklusiboak ere.

 [primeran.eus](http://primeran.eus)

#### Makusi



EITBren haurrentzako kluba ez ezik, haurrentzako eta gaztetxoentzako euskarazko ikus-entzunezkoen plataforma digitala da. Adinaren arabera sailkatutako eduki ugari eta aberatsa dago.

 [makusi.eus](http://makusi.eus)

# Bidea partekatzeko topaketa

'Euskara eta kulturartekotasuna' egitasmoa lantzen ari diren eskolen, udalen eta herrietako talde-eragileen topaketa antolatu zuen UEMAK martxoan, Zaldibian.

24 herritako ordezkariak elkartu ziren, egiten ari diren bideaz hitz egiteko: eskoletako zuzendariak eta irakasleak, gurasoak, udaletako ordezkariak eta teknikariak, eta talde-eragileetako kideak.

UEMAko teknikariek eman zioten hasiera topaketari, elkarren berri izateko beharra nabarmenduz, zenbait talde-eragilek eskatu bezala. "Orain arte batu den jakintza partekatzea da topaketa honen helburua", adierazi zuten.

Izan ere, hainbat eskola eta eragile ari dira egitasmo hau lantzen, eta elkarren berri izateko beharra eta gogoia aipatu izan dute batean eta bestean. Batez ere besteentzat interesgarriak izan daitezkeen praktika onak ezagutarazteko eta egoera zehatzen aurrean gainerakoek zer-nolako erabakiak hartu dituzten partekatzeko.

### Mugarriak, praktika onak eta erronkak

Ondoren, Zaldibiako Lardizabal Herri Eskolako eta Ondarroako Zaldupe eskolako ordezkariak hartu zuten hitza, egindako bidearen eta sumatu dituzten aldaketen berri emanez, "Kulturartekotasuna zein aberatsa den erakusteko giroa nola aldatu duen, harreman berriak nola sortu diren eta prozesua zein aberasgarria izan den" zehaztu zuten.



**BIDEOA.** Euskara eta kulturartekotasuna topaketa, Zaldibian [labur.eus/EK2024-Zaldibia](https://www.youtube.com/watch?v=labur.eus/EK2024-Zaldibia)

Horren ostean, parte-hartzaileak bost taldetan bereizi eta bidean aurkitu dituzten mugarren inguruan hausnartu zuten: zerk poztu dituen batez ere, zer-nolako oztopoak gainditu behar izan dituzten, eta zein den orain duten erronka. Erantzun guztiak bateratu eta laburtu ondoren, orain arteko praktika onak nabarmendu zituzten.

Topaketei amaiera emateko, UEMAK aurrera begirako irizpideak aletu zituen: egitasmoa lantzeko eta sistematizatzeko irizpideak, prozesuaren nondik norakoak, eta eragile bakoitzaren rolak eta funtzioak zein izango diren eta nola koordinatuko diren aurrerantz.

## EUSKARA ETA KULTURARTEKOTASUNA udalerrri euskaldunetan.

### 2021-2022 ikasturtea.

UEMAK Zaldibian abiarazi zuen egitasmoa, bertako udalarekin, eskolarekin eta hainbat eragilerekin batera, Mondragon Unibertsitateko Humanitate eta Hezkuntza Zientzien fakultatearekin (HUHEZI) lankidetzan. Egitasmoak oihartzun handia izan zuen, eta ekimena beste herrietara zabaltzeko eskaerak egiten hasi ziren udalak.

### 2022-2023 ikasturtea.

Udalen laguntzarekin, Aizarnazabalen, Ibarra, Leitzan eta Ondarroan landu zuen UEMAK egitasmoa, eskolekin.

### 2023-2024 ikasturtea.

Alegia, Arbizu, Areatza, Asteasu, Azpeitia, Bera, Itsasondo, Legorreta, Lizartza, Markina-Xemein, Mutriku, Oñati eta Oriora zabaldu zuen UEMAK egitasmoa, Eusko Jaurlaritzaren eta Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntzarekin, herri horietako udalekin, eskolekin eta talde-eragileekin elkarlanean.

### 2024-2025 ikasturtea.

Ikasturte honetan, azkenik, Anoeta, Ataun, Etxebarria, Ezkio-Itsaso, Goizueta, Ikaztegieta, Lekeitio, Mutriku, Oiartzun, Otxandio eta Zumaian ari da lantzen UEMA egitasmoa.

# Gero eta arrakastatsuagoa da sormena eta bideogintza uztartzen dituen Arnasetik lehiaketa



Azaroaren 28an Bergarako Seminarixoan egindako ekitaldian elkartu ziren euskararen arnaguneetatik heldutako dozenaka ikasle, irakasleekin eta gurasoekin, finalera iritsitako lanak ikusteko eta sariak jasotzeko. Argazkia: Idoia Telleria.

Euskararen arnaguneen eta udalerrri euskaldunen garrantzia nabarmendu nahi duen Arnasa Gara kanpainaren harira, hirugarren aldiz Arnasetik bideosormen lehiaketa antolatu dute udazken honetan UEMAK, Eusko Jaurlaritzak eta Nafarroako Gobernuak, udalen eta eskolen laguntzarekin. Aurten ere arrakastatsua izan da deialdia, eta 10 eta 16 urte arteko ikasleen 260 lan jaso dituzte antolatzaileek, iaz baino 148 gehiago.

Hiru urtean, Arnasetik lehiaketa erabat errotu da udalerrri euskaldunetako 10 eta 16 urteko ikasleen artean. Sormenaren bidez, hainbat egoera islatzeko eskatzen zaie gazteei, eta nabari da bidea gustukoa dutela. Izan ere, lagunekin, ikaskideekin edota bakarka sortzeko aukera eskaintzen du lehiaketak, eta lagunartean antolatzeko eta ikasteko modu ederra da.

Lan guztiak [arnasagara.eus](http://arnasagara.eus) webgunean eta ekimenaren YouTube kanalean daude ikusgai.

**Arnasetik lehiaketak gazteen sormena bultzatzen du, arnaguneetan euskararen erabilera sustatzeko asmoz**

Aurten hiru kategoria izan ditu lehiaketak, eta adinaren arabera egokitutako ariketak aurkeztu behar izan dituzte ikasleek. Publikoaren Saria ere izan da lan guztien arteko gustukoarenentzat.

**LH 5-6: TXOKORAKO BIDEA.** Herriko txoko kuttun bat aukeratu, eta azaldu zergatik den zuentzat hain berezia. Irabazlea: **Elizpeko arbola (Berriatua).**

**DBH 1-2: PRESTATU GUREKIN.** Urte osoko herriko egun gustukoena aukeratu, eta azaldu zergatik den handia bezain berezia. Irabazlea: **Gabon maiteak (Azkoitia).**

**DBH 3-4: BOSTEKO KATEA.** Zuen herriko nor izan nahiko zenuketen adierazi, zergatiarekin batera, eta osatu bosteko katea galdera bera eginez. Irabazlea: **Leokadi (Ondarroa).**

**PUBLIKOAREN SARIA.** Bozka gehien jasotzen dituenak jasotzen du saria. Aurten 4.200 bozka jaso dira. Irabazlea: **Txokorako bidea (Zaldibia).** Lardizabal Herri Eskolako ikasleak.

# SALTO! UDALEKUA



## Arantzik Elizondora, udalerrri euskaldunetako udaleku ibiltarian

Aurten, lehen aldiz, bi txanda izan ditu udalerrri euskaldunetako gazteentzako udalekuak: ekainaren 24tik uztailaren 2ra lehenengoa, eta uztailaren 4tik 12ra bigarrena. 2006 eta 2009 urteen artean jaiotako gazteek izan dute udalekuan parte hartzeko aukera. Otsailean zabaldu zuen deialdia UEMAK, eta 235 lagunek eman zuten izena. Antolakuntza kontuengatik kopurua 120 lagunetara mugatuenez, azken urteotan bezala zozketa egin behar izan zuen horien artean UEMAK.

Hamar egunez Nafarroan barrena ibili ziren gazteak, eta Arantza, Doneztebe, Oronoz-Mugairi eta Elizondo herriak ezagutu zituzten, euskaldun gisa ahalduzko UEMAK eta udalekuaren ardura duen Hezten elkarteak prestatutako egitarau oparoaren baitan.

Udalerrri euskaldunetako gazteak euskararen inguruan sentsibilizatzea eta eragile aktibo bihurtzea da udaleku hauen helburua, eta gero eta oihartzun eta arrakasta handiagoa ari da izaten gazteen artean. Aurtengoaz ere balorazio oso positiboa egin du UEMAK, helburuak erabat bete direlakoan eta udalerrri euskaldunetako gazteak saretzeko ere baliagarria izan delakoan.





**Eire  
Markina  
(Mallabia, 16 urte)**



**“Euskara sustatzeko, Euskal Herri osoko lagunak egiteko eta bertako paisaiak ezagutzeko aukera bikaina da”**

Gogoan dut udalekuan izena emateko epea ireki zenean bidali zidatela mezua, eta hasieran asko pentsatu behar izan nuen izena eman ala ez. Baina zergatik ez? Euskara sustatzeko, Euskal Herri osoko lagunak egiteko eta bertako paisaiak ezagutzeko aukera bikaina da. Anekdotaz, ibilaldiz eta ekintzaz beteriko hamar egun dira, eta hasiera batean denbora asko dela ematen duen arren, egunak hegan igarotzen dira hain gustura zauden lekuan. Ahal den guztia egingo nuke udaleku zoragarri eta ahaztezin hura berriz errepikatu ahal izateko.



**Peru  
Alijostes  
(Oartzun, 18 urte)**



**“Euskal gazteak saretzeaz gain, euskararekin eta euskaraz gozatu daitekeela erakusten du”**

Salto udalekuen garrantzia izugarria iruditzen zait. Izan ere, euskal kultura bultzatzeaz, euskal gazteak saretzeaz eta esperientzia polita izateaz gain, euskararekin eta euskaraz gozatu daitekeela erakusten du. Bai udalerrri euskaldunetan bizi den eta euskaldun petoa den edozein gazteri, eta baita oraindik ere euskara ikasten ari den edota euskaraz hain ondo moldatzen ez den gazteari. Azken honi, euskara interesgarri, erakargarri eta gozagarri izan daitekeela erakusten dio, eta badela mundu oso bat euskaraz bizi dena, naturaltasun osoz. Horrela, gazteon artean euskara bultzatzen du eta euskararen garrantziaz ohartzen laguntzen du.

**Aritz  
Illarramendi  
(Zarautz, 16 urte)**



**“Udalerrri euskaldunetako gazteen artean lotura ahaztezinak sortzeko aukera ematen du”**

Bortzirietako herrietan edo Baztango bazterretan uda honetan bizitako guztia ez zait erraz ahaztuko. Arantza, Doneztebe, Oronoz-Mugaire eta Elizondon barrena, esperotakoa baino askoz ederragoa izan da Salto! udalekua, eta espero nuena baino askoz hobeto pasatu dut. Ibiltaria izateak kezkatzen ninduen hasieran, baina ederki moldatu gara denok.

Beste udalerrri euskaldunetako gazteak ezagutzeko eta gure artean lotura ahaztezinak sortzeko aukera ematen du udaleku honek, euskara eta euskal kultura zein garrantzitsuak diren erakustearekin batera. Ni behintzat datorren urtekoaren zain nago!

## **‘Bizkarsoro’ filma milaka herritarrengana iritsi da aurten, UEMAK ekoizlearekin eta banatzailearekin sinatutako hitzarmenari esker**

Euskararen aurkako jazarpenaren historia kontatzen du Josu Martinezen filmak.

Euskaldunen bizitzeko gogoaren eta euskararen aurkako jazarpenaren historia kontatzen du *Bizkarsoro* filmak. Josu Martinezek zuzendutako lana urtarrilean iritsi zen zinema aretoetara, eta ahalik eta herri gehienetan erakustea garrantzitsua iruditu zitzaion UEMARI, “euskara erabiltzeagatik belaunaldiz belaunaldi jasandakoa ezagutzeko eta horri aurre egiteko euskaldunek erakutsi duten kemena ikusarazteko”.

Horregatik, UEMAK elkarlanerako hitzarmena sinatu zuen Gastibeltza Filmak ekoizlearekin eta

Dijitalitatea banatzailearekin, udalei erraztasunak emateko, eta filma ahalik eta herri eta ikastetxe gehienetara zabaldu ahal izateko.

Filma UEMAKo kide diren herrietan eskaintzeko baldintza bereziak adostu zituzten: besteak beste, emanaldiaren kostuaren erdia UEMAK beregain hartzea, eta herrietan zein eskoletan filmaren ondoren solasaldiak gidatzea, gaiaz hitz egiteko.

Udaletatik eta ikastetxeetatik 150 eskaera baino gehiago jaso ditu UEMAK, eta urte osoan zehar milaka ikaslek eta herritarrek ikusi dute filma.



## **Udaletako 131 teknikaririk jaso dute ELE egiteko prestakuntza-saioa**

Proiektu zehatzek udalerrien hizkuntzan izan dezaketen eragina legez aztertu behar dute EAEko udalek, eta horretarako jarraibideak eman dizkie UEMAK teknikariei.

EAEko Udal Legea onartu zenetik, proiektu zehatzek udalerrien hizkuntzan izan dezaketen eragina legez aztertu behar dute Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako udalek, eta horretarako jarraibideak eman dizkiete aurten UEMAK eta Eusko Jaurlaritzak teknikariei, bost prestakuntza-saiotan.

Eragin Linguistikoaren Ebaluazioa egiteko aplikazioa garatu du Eusko Jaurlaritzak, UEMAREN metodologian oinarrituta, eta aplikazioa erabili ahal izateko formazio-saioak jaso dituzte 134 teknikaririk.



Saioak batez ere Euskal Herri osoan udaleko hirigintza, turismo eta euskara teknikarientzat baliagarriak ziren arren, edonorentzat zeuden zabalik. Azkenean 134 lagunek eman zuten izena. Erdiak, hirigintza arloko profesionalak. Olereta-Erreterria, Gasteiz, Bilbo, Markina-Xemein eta Bergaran jaso zituzten prestakuntza saioak.

## Gidabaimenak Euskaraz ekimena sustatu dute UEMAK eta udalek

Gidabaimena euskaraz ateratzeko material eta aplikazio berriak sortu dituzte, eta horiek zabaldu ditu UEMAK, udalekin batera.

Gidabaimena euskaraz ateratzeko material eta aplikazio berriak sortu ditu Euskadiko Autoeskolen Federazioak, eta ekimenaren zabalpuntean parte hartu du UEMAK, bertako kide diren udalekin batera. Izan ere, edukiak eta hizkuntza bereziki landu dira material berria sortzeko, eta ikasleentzako eskuliburuak, testak eta azalpen bideoak euskaraz sortu dituzte.

UEMArentzat garrantzitsua da udalerrri euskaldunetako gazteek euskara nonahi erabili ahal izatea. Horregatik, gidabaimena euskaraz ateratzeko aukera hau hauspotu nahi izan du mankomunitateak. UEMAKo kide diren udalek autoeskolei egitasmoarekin bat egiteko mezua helarazi diete idatziz, eta gazteei gidabaimena euskaraz ateratzeko aukeraren berri eman diete. UEMAKo teknikariek, berriz, batxilergoko tailerretan ezagutarazi diete ekimena gazteei.



## Bizilagun berriei harrera hizkuntza ikuspegitik egiteko protokoloa

UEMAk harrera protokoloa prestatu du, eta Eudelek aintzat hartu du onartu berri duen eskuliburuan, aipamena eginez.

Lehenengo harrerak berebiziko garrantzia duenez herrian bertakotzeko garaian, UEMAK arnaguneetarako eta udalerrri euskaldunetarako harrera protokoloa prestatu du, hizkuntzaren ikuspegia ere kontuan hartuta.

Eudelek eta Biltzenek, integrazioarako eta kulturen arteko bizikidetzarako Eusko Jaurlaritzaren zerbitzuak, berriz, elkarlanean prestatu dute *Euskadin atzerriko pertsonak hartzeko tokiko politikak diseinatzeko Eskuliburuak*. Horren helburua da gidalerro praktikoak eskaintzea udalei, atzeritik datozen pertsonen beharretara egokitutako harrera-politikak lantzerakoan. Tartean da euskararen gaia ere, eta arnagune eta udalerrri euskaldunetarako aipamen berezia txertatu dute UEMAREN harrera irizpideak kontuan hartuta.

## 'Bertatik Bertara' kanpaina

# Zerbitzu sektorean ere euskarak dagokion lekua izan dezan

Bisitariari eta horiekin harremana duten zerbitzu sektoreko langileei euskararen garrantzia ikusarazteko kanpaina egin dute uda honetan ere UEMAK eta udalek.

Bosgarren aldiz, bisitariak zein bisitariekin harremana duten zerbitzu sektoreko arduradunak eta langileak euskara aintzat hartzera gonbidatzeko kanpaina egin dute uda honetan ere udalerrri euskaldunetan. Horretarako hainbat baliabide eskaini dituzte UEMAK eta bertako kide diren dozenaka udalek, eta 300.000 mahai-gaineko inguru banatu dituzte udalerrri euskaldunetako taberna, jatetxe eta ostatuetan. Ekainetik irailera bitartean izan da kanpaina abian.

Bertatik Bertara kanpainarekin, bertako produktuen, paisaiaren eta gainerako eskaintza zabalaren artean, udalerrri euskaldunen nortasuna egokien islatzen duena euskara dela nabarmendu nahi izan du aurten ere UEMAK, ekimenean parte hartu duten udalekin eta garapen agentziekin batera.

Horretarako, bisitariarentzat zein zerbitzu sektoreko arduradunentzat eta langileentzat hainbat baliabide zabaldu zituen udaren atarian: webguneetarako eta sare sozialetarako edukia, tabernetan eta jatetxeetan erabiltzeko mahai




gainekoak, edota bisitariak telefonoetan ikusi ahal izateko hiztegia, besteak beste. Horiez gain, Turismo bulego, ostatu, landetxe eta hoteletan zabalatzeko diptikoak ere zabaldu zituen UEMAK, euskaraz, ingelesez, katalanez, gaztelera, frantsesez eta galizieraz.

Bertako hizkuntza ere kalitatea eta hurbiltasuna erakusteko ezinbesteko osagaia dela gogoratu nahi izan zaie aurten ere zerbitzu sektoreko arduradunei, eta kanpainaren berri emateko, UEMAKo kide diren herri guztietako merkatariei eta ostalariei helarazi zaie ekimenaren berri, udalen laguntzarekin.

## Nire bidaiaren soinu banda: musikaren bidez ere euskara entzuteko zerrenda

Aurten, lehen aldiz, Bertatik Bertara kanpainako euskarri guztietan *Nire bidaiaren soinu banda* izeneko musika-zerrendaren lotura zabaldu du UEMAK. Zerrendaren helburua bisitariari euskal musika ezagutaraztea eta musikaren bidez ere euskara entzuteko aukera eskaintzea izan da.

Euskal musikan sona handia izan duten abestiak biltzen ditu zerrendak, askotariko estilotakoak eta garai ezberdinetakoak.



## Nire bidaiaren soinu banda

Eskaneatu QRa musika-zerrenda entzuteko



# Udalerri euskaldunen eta euskararen inguruko albisteak, denen eskura


Iaz estreinatutako soineko berriarekin dabil UEMA sarean, dotore. Izan ere, mugikorretan zein gainerako pantaila guztietan egoki ikusteko moduko diseinu garaikidea du [uema.eus](http://uema.eus) webguneak, edukia eguneratuta.

Gainera, UEMA erakunde publikoa denez, egoitza elektronikoa ere ezinbestekoa du, eta webguneko atal horretatik udalek zein herritarrek ohiko izapideak modu telematikoan egiteko aukera dute, modu errazean.

UEMAren argitalpen guztien bilgune ere bada webgunea, eta mankomunitatearen eta udalerrri euskaldunei buruzko albisteekin iraunkorki eguneratzen da bertako informazioa.

UEMAren sare sozialetan ere mezularitza kanaletan ere etenik gabea da emaria. Horien artean, nabarmentzekoa da UEMAK egunero elikatzen duen [Euskararen Hemeroteka](#) Telegram kanala, hedabideek euskararen inguruan argitaratutakoaren bilduma eskainiz, goizero.

[www.uema.eus](http://www.uema.eus)



## UEMA sareetan

Webgunean ez ezik sarean ere etenik gabe zabalitzen du UEMAK informazioa, bitarteko hauek erabiliz



Telegram  
tme/UEMAeus



mastodon.eus  
@uema



YouTube  
@UEMAeuskaraz



Instagram  
@uema\_eus



X [lehen Twitter]  
@uema\_eus



Facebook  
UEMAeuskaraz



Linktree  
@uema\_eus

Aduna · Aizarnazabal · Ajangiz · Alegia · Alkiza · Altzaga · Altzo ·  
Amasa-Villabona · Amezketeta · Amoroto · Anoeta · Antzuola · Araitz · Arama ·  
Aramaio · Arano · Arantza · Arantzazu · Arbizu · Areatza · Areso · Arrankudiaga-  
Zollo · Artea · Arruazu · Asteasu · Astigarraga · Añun · Añondo · Aulesti · Azkoitia ·  
Azpeitia · Bakaiku · Bakio · Baliarrain · Basaburua · Baztan · Beizama · Bera ·  
Berastegi · Bergara · Bermeo · Berriatua · Berrobi · Bidania-Goiatz · Busturia · Deba ·  
Dima · Doneztebe · Ea · Elduain · Elgeta · Errezil · Etxalar · Etxarri Aranatz ·  
Etxebarria · Ezkio-Itsaso · Gabiria · Gaintza · Gatika · Gaztelu · Getaria ·  
Gizaburuaga · Goizueta · Hernani · Hondarribia · Ibarra · Idiazabal · Igantzi · Igorre ·  
Ikaztegieta · Irura · Itsasondo · Ituren · Izurtza · Lakuntza · Larrabetzu · Larraun ·  
Leaburu-Txarama · Legorreta · Leitza · Lekeitio · Lekunberri · Lesaka · Lezo · Lizartza ·  
Mallabia · Mañaria · Markina-Xemein · Mendaro · Mendexa · Munitibar · Mutriku ·  
Muxika · Oiartzun · Oñati · Ondarroa · Orendain · Oresa · Orio · Orozko · Otxandio ·  
Segura · Tolosa · Usurbil · Zaldibia · Zarautz · Zeanuri · Zegama · Zerain · Zestoa ·  
Ziortza-Bolibar · Zizurkil · Zumaia

# UEMA



**113 udal eta  
348.000 biztanleko  
lurgune euskalduna**

**EUSKARA eta  
URTE BERRI ON!**